


2012ko Udako eta Udazkenako Txostena

Bake-prozesuaren azterketa



Aurkezpena

Bake prozesuaren Behatoki Sozialaren Txosten berri honek hamabosgarren zenbakia betetzen du bakearen eta bizikidetasunaren harira euren iritzia helarazteko bide hau zabaltzea erabaki zenetik eta X pertsonen hausnarketak biltzen dira 2012. urteko uda eta urte bereko udazkena bitartean izan diren gertakarien oinarrian.

Ohi den legez, Behatoki Sozialaren txostenak aurreko hiruhilekoan gertatu dena aztertzen du. Alabaina, aldi honetan, Euskal Autonomia Erkidegorako hauteskundeak deituta zeudela ikusita, udari zegokion Behatoki Sozialaren egitasmo hau atzeratzea eta hauteskundeak burutu arte itxarotea erabaki zuen Lokarrik. Modu honetan, aurreko bi hiruhilekoetan bake prozesuaren inguruko hautematea zein izan den modu bateratuan jakin ahal izateko.

Hori horrela, 2012. urteko udako eta udazkeneko Txosten honek uztailetik azarora bitartean bake prozesuak izan duen egoera aztertzen du. Denbora tarte horretan, aipatu bezala Euskal Autonomia Erkidegorako hauteskundeak egin dira, ETAk hiru agiri zabaldu ditu eta baldintzapeko askatasuna onartu zaio sendaezina den gaitz batek jota den Josu Uribetxebarria presoari. Afera hauen inguruan emandako erantzunekin osatutakoa da Lokarrik aurkezten duen txosten hau.

Txostenak, hartara, hurrengo atalak ditu:

- 1-Galdetegiari eskaini zaizkion erantzunen azterketa
- 2-Bake prozesuaren egoeraren azterketa.
- 3-Bake prozesua bultzatzeko Lokarriren gomendioak eta konpromisoak.

Aurrekoetan bezala, Lokarrik konpromisoa hartzen du Txosten berri honen emaitzak gizarte eragileei eta alderdi politikoei helarazteko. Galdetegi hau erantzunez parte hartu duten pertsonen dituzten kezkek eta hausnarketak ezagutzeko modua izango dute. Izan ere, hau horrela, bakearen eta bizikidetasunaren kezkek zer nolako hausnarketak pizten dituzten gizartearengan jakin ahal izango dute.


Bake prozesuaren egoera

Galdetegiak emandako emaitzen azterketa

1. Zein da bake-prozesuaren harira duzun iritzia?

Bake-prozesuaren harira batz bestekoa 10 puntutik 5,79koa da, urte bereko Udaberriko txostenean jaso zen 5,52 inguruko batz bestekotik apur bat gorago. Orain urte bete, Aieteko Nazioarteko Konferentziarekin eta ETak bere ihardun armatua behin betiko eteten zuela zioen iragarpenarekin bat, batz besteko balorazioak 7,76ko onarpena izan zuen, argitaratu diren Txosten guztietan inoiz izan den onespunik altuena.

Balorziorik positiboak (7tik 10era bitartean) erantzun guztien %38 dira, aurreko Txostenean %29 ziren bitartean. Aldi honetan, beste behin ere, erantzun gehienak 5etik 6ra bitarteko balorazioetan kokatzen dira, erantzunen %41 alegia; bitartean, bake prozesuari iritzi negatiboa erakutsi nahi dioten erantzunak (1 eta 4 bitartekoetan) %21 dira. Orain dela urte bete, 2011ko udazkeneko txostenean, balorazio negatiboak guztiaren %2 soilik ziren.



2. Zein iritzi duzu ETak indarkeriaren amaieraren aldeko konpromisoa berretsiz azken aldi egin dituen agirien inguruan?

Gehiengoaren jarrera, erantzunen %51 batek, ETak aldebakartasunez urratsak ematen diharduela adierazi nahi du eta, tenorea izanik jada gainontzeko agenteak inguratzeko bake prozesuaren baitara. Bigarrenik, erantzunen %31ak adierazi nahi du garrantzitsua dela ETak bere konpromisoa gogoraraztea, honek indarkeriaren amaieraren atzerazintasuna berresten duelako.

%6k uste du agiri hauek ez dutela ezer berririk adierazten eta %4k adierazten du ETArengandik espero duen agiri bakarra bere disoluzioarena dela. Azkenik, %8 da “Besteak” aukeraren alde egin duena, eta erantzun honen oinarrian dago ETAk preso dauden pertsonen afera konpondu behar duela, inolako kontraprestazio politikorik gabe egin ere; eragindako oinazea onartu behar duela eta bere disoluziorako amaiera apailatua bilatu behar duela.

3. Zer iritzi diozu Iosu Uribetxebarria presoari baldintzapeko askatasuna eman izanaz?

Erantzunen %61 da erabaki zuzena izan deneko iritzikoa, nahiz eta aldi berean gobernuak afera hau kudeatzeko unean borondate eza erakutsi duen. Nahiz eta erabakia ulertzeko erraza ez izan, indarrean den legediak ahalbidetzen duena dela uste dutenen iritzia %16 ingurukoa da; bitartean, %8k uste du erabakia zuzena izan dela, presoan alde diharduten taldeen eta euren senitartekoentzat nekagarria izan den arren. Soilik bi pertsonak aukeratu dute biktimentzat iraingarria izan dela zioen erantzuna.

%15 da “Besteak” aukera hautatu duena. Kasu honetan, indarrean den legediarekin bete dela eta irizpide humanitarioak aintzat hartu izan direla adierazi nahi da, eta hau positiboki ikusten da.

4. Berriki izan diren hauteskunde autonomikoen harira zein da zure iritzia?

Partaideen %62k uste du hauteskunde autonomikoak historikoak izan direla, ETAren indarkeriaren mehatxurik gabe burutu eta aukera guztiak legezatuak izan direlako. %13k uste du ohikoak izan direla eta edozein demokraziari berezkoa zaion normaltasunarekin gauzatu izan direla eta %11 baten aburuz, aldiz, hauteskundeak konstituziogileak izan dira Euskadiraiko bigarren trantsizio bat irudikatu dutelako. Azkenik, %1ek uste du demokraziaren aurkako hauteskundeak izan direla indarkeria gaitzetsi izan ez dutenek modua izan dutelako aurkezteko.

Erantzunen %13k “Besteak” aukera hautatu du bere erantzunari nabardurak emateko. Erantzun hauetan gehiago batek egungo hauteskunde sistema bera eta ordezkari politikoen kalitatea zalantzan jartzen ditu. Aldi berean, hauteskunde hauek agerian jarri dutela euskal gizartearen aniztasuna eta pluraltasuna nabarmendu nahi dute, edota Estatuaren indarkeriak badirauela ETAren indarkeria desagertu den arren.

5. Bakearen eta elkarbizitzaren alde egiteko zein beharko luke hurrengo Lehendakariaren lehentasunak?

Galdetegia erantzun duten lagunen erdiak baino gehiagok, hots, %59k uste du bakearen eta bizikidetasunaren bidean hurrengo Lehendakariaren lehentasunak izan beharko lukeela afera hauen inguruan elkarriketa esparruak zabaltzea hala politikaren eremuan nola gizartean bertan. Norabide berdinean erantzun du %19 batek, eta hauen arabera indar politiko guztien artean elkarriketa zabaltzeko beharko litzateke bake bidean egitasmo bat prestatzeko. Bestetik, %10 baten iritzian, bakea eta elkarbizitza sendotzeko Plan bat prestatzeari eman beharko litzaioke lehentasuna. Erantzun hauen aldean, %3k uste du ez dela inolako neurri berezirik hartu behar, ez behintzat orain arte hartu ez den neurririk. Eta azkenik, %9k uste du bestelakoak direla lehentasunak eta hauetan krisia eta enpleguaren sortzea aipatzen dira. Gainera, beste erantzunetan zehaztasunez aipatzen dira bakea eta bizikidetasuna laguntzeko eman beharreko urratsak: ETArekin elkarriketa, elkarte desberdinen arteko elkarriketa prozesu bati ekin edota Aieteko adierazpena aintzat hartu.

6. Bakearen bidean zein aukera dakusazu oraingo egoeran?

Ohar bat lehenik eta behin: pertsona bakoitzak bi aukera hautatu zitzakeen eta hainbat kasutan bi aukera baino gehiago hautatu izan dira eta horren ondorioz ehunekoak %100 baino goragokoak dira.

Galdetegiari egindako eta jaso izan diren erantzunetan zehazten denez bakearen bidean aukerarik nabarmenenak ezker abertzaleari egiten dio aipamen %48 batean, ehuneko honetan iritzi baita soluziobide demokratikoen eta indarkeriarik gabeko bideen aldeko ezker abertzalearen apustua sendoa dela. Ehuneko honetatik hurbil aipatzen dira: ETAREN indarkeriaren amaiera (%29), nazioarteko laguntza (%24), eta gizartearen ilusioa (%23).

Neurri apalago batean baina bakearen bidean aukera gisara ikusi izan dena halaber Sorturen legeztatzea (%12), Eusko Legebiltzarrean indar politikoen arteko ordezkari mailaren aldaketa (%11), edota bakea egonkortzearen hautagaiek egindako promesak (%8) eta hauteskunde kanpainan hautagaien arteko liskar mailak behera egin izana (%8) izan dira.

Azkenik, %1ek soilik iritzi du ETAREN aurrean Espainiako gobernuaren sendotasuna aukera izan daitekeela bakearen bidean.

Amaitzearren, erantzunen %5ak bestelako aukerak ikusi dizkio bakeari: Euskal Herria bere osotasunean zeharkatzen duen bakearen eta soluziobideen aldeko marearena alegia, edota alderdi politikoen arteko konfidantzarako eraikinaren altxatzea.

7. Iragan azaroaren 25ean ETAK zabalduko agiriaz zein iritzi duzu?

Partaideen %81ak uste du ETAREN agiri hau positiboa dela, nahiz eta iritzi honi nabardurak egiten zaizkion: %42 baten ustez positiboa da desarmeari begira ETAK erakusten duen jarrera dela kausa, nahiz eta gehitzen duen are positiboagoa izango litzatekeen eragindako oinazea onartzearen ETAK urratsak emango balitu; eta %39k iritzi dio positiboa dela ETAK berriro indarkeriaren behin betiko amaiera berresten duelako.

Agiri hau zalantzarria dela diotenenek kezka handiagoa agertzen dute. Izan ere, hauen irudikoz, ETAREN erabakia ez da atzeraezina izango Gobernuak bere aldetik urratsik ematen ez badu (%11). Gainera, %4ko proportzioan, ETAREN agiri hau etsigarria da, ETAREngandik gizarteak espero duen agiri bakarra bere disoluzioarena delako.

Gainerako %4k "Besteak" aukera hautatu du. Honetarako arrazoia izan daiteke agiri irakurri ez izana edota, nahiz eta arrasto positiboak ikusten dizkioten, euren zalantzak agertzeko, ETAREN beraren jarreraren aurrean, zein Espainiar gobernuaren borondate faltari dagokionean.

Bake-prozesuaren egoeraren azterketa

Behatoki Sozialaren galdetegia erantzunez parte hartu duten pertsonen iritzia egungo egoeraren isla da. Bake prozesuaren egoerari batz bestean ematen zaion balorazioak -5,79koak- Neguko txostenean jasotako balorazioaren aldean (5,52) gora egin duen arren, Aieteko Konferentziak eta ETAREN ibilbide armatuaren behin betiko eteteak eragin zuten itxaropen maila hoztu egin dela erakusten du, eta honen zergatia itxuraz egoerak erakusten duen geraldia da. Bake prozesuaren baitan egungo balorazioak eta 2010. urteko balorazioak oso antzekoak dira, 2011. urteko udazkenean iritzi positiboaren hautematerik baikorrena sendotzen hasi zeneko aurretikoa.

Gertaera bat: eszena aldatu egin da

2011. urteko udazkenetik aurrera bake prozesuarekiko hautemate positiboak behera egin duen arren, eta galdetegiaren erantzunek ematen dituzten zenbakien oinarrian beti ere, Txosten honen erantzun eta iritzien babesean adierazi daiteke ETAREN indarkeriaren falta normalizatu egin dela, eta normalizatu egin dela halaber erakundeetan alderdi politiko guztien lehia ahala, berdintasunean oinarrituta dena gainera. Euskal Autonomia Erkidegoan burutu diren azken hauteskundeak historikoak izan dira gehiengo handi baten iritzian, eta honek argi eta garbi erakusten du egungo egoera erabat desberdina dela azken urteetan bizi izan dugun egoerarekin alderatuta.

Kezka bat: Espainiako gobernuaren erantzun eza

Galdetegiari jaso izan diren erantzunetan argi eta garbi adierazten da bakea egonkortzeko bidean aurrera egiteko beharra dagoela. Horrela azaltzen da ETAREN agiriak baloratzerakoan, ETA aldeakartasunez diharduela iritzi baita, eta hori horrela, instituzio eta alderdi politikoei deia luzatzen baitzaie konpromisoak har ditzaten bake prozesuan murgildu daitezten.

Horren adibide da Espainiako gobernuak Uribetxebarria auziarekiko egin duen kudeaketa, era negatiboan baloratu dena bakea errotzeko benetako borondate eza bezala.

Etorkizunari begira

Egungo egoeran bakerako ikusten diren aukerei dagokienean, jada gauzatuta diren eta denboran irauten duten aukerak nabarmentzen ditu erantzunen gehiengo batek eta honen adibide dira bide demokratikoen eta baketsuen aldeko Ezker abertzalearen apustu irmoa, ETAREN ihardun armatuaren amaitzea, gizartearen itxaropena eta nazioarteko babesa.

Etorkizunari begira, Lehendakari berriari eskatzen zaio bultzatzea dezan elkarrizketa prozesu politiko eta sozial berri bat, eta ETARI bere desarmean aurrerapausoak eskatzen zaizkio zinetan Espainiako gobernuak parte hartuko lukeen; ETARI berak eragindako oinazearen onarpena eskatzen zaio ere; espetxe politikan legeak berak onartzen dituen aldaketak gauzatu eta preso dauden pertsonen baldintzen ikuspegia gizatiartzeko helburua gailendu daitezten eskatzen da azkenik.

Lokarriren gomendioak, bake prozesua errotzeko

Txosten honi erantzun dioten guztien iritziek bake prozesuan aurrera egiteko beharra adierazten dute, beti ere bakea eta elkarbizitza sendotzen joateko norabidean. Erronka honek instituzio, alderdi eta gizarte mugimendu guztien parte hartzea eskatzen du, gizarteari pauso eraikitzaile eta positiboetan zehaztuko den itxaropen zerumuga eskaintzeko helburuarekin.

Hau horrela, Lokarrik hurrengo gomendioak egin nahi ditu:

1. Espainiar Gobernuari

Lokarrik berriz ere espainiar Gobernuari deia luzatzen dio bakearen eraikitze eta errotzearen inguruan bere erantzukizuna onartu eta zera bultzatzea: 1) ETArekin elkarrizketa prozesu bati ekitea ETArekin desarmea, bere deuseztatzea eta gizartera bere bergizarteratzea helburu izango dituen xedeekin, eta 2) egungo espetxe politikan beharrezkoak diren aldaketa guztiak eman daitezzen, irizpide gizarteratuen arabekoak eta preso dauden Giza Eskubideen baitarakoak izango direlarik beti ere.

2. ETARI

Lokarrik indarkeriaren behin betiko etetea atzeraezina izan dadin eskatzen dio ETARI. Honekin batera bere desarmeari eta deuseztatzeari ekiteko ahal den bide orotan ahalegindu dadin eskatzen dio. Gainera, dei egiten dio aldebakartasunez urratsak eman ditzan eragindako mina onartzeko.

3. Lehendakari berriari

Eusko Jaurlaritza berriari Lokarrik proposatzen dio maila politikoan zein gizarte mailan elkarrizketa guneak abiarazi ditzan. Gainera, adostuta izango den ekimen bat gidatu dezan eskatzen dio; ekimen honek egungo egoera gainditzeko beharrezkoak diren adostasunak erdiesten lagunduko luke.